

Tolosa Herria 2021



“TOLOSA HERRIA” ARGAZKI LEHIAKETA 2021

Argizaiola lehiaketaren sailkapenerako baliagarria 005/2021

BABESLEAK

Tolosako Udala eta Tolargi.

PARTEHARTZAILEAK

Parte hartu nahi duten argazkilaria profesional nahiz amateur guztiak.

GAIA

Askea, bai adierazpenean, bai teknikan.

KATEGORIA OROKORRA

Egile bakoitzeko hiru argazkiko bilduma bat, elkarrekin baloratuko dena serie bat bezala. Ezingo dira aurkeztu 16 urteko egileak edo adin horretatik beherakoak.

GAZTEEN KATEGORIA

Tolosaldean bizi diren 8 eta 16 urte bitarteko egileak aurkeztu ahal izango dira. Egile bakoitzeko lau argazki gehienez, banaka baloratuko direnak.

Ez da onartuko aurreko edizioetan aurkeztutako argazkirik.

Argazki guztiak egileak berak eginak izango dira erabat, hau da, ezin izango dute berea ez den elementurik edo atalik argazkian sartu.

Aurkeztutako argazkiek ezin izango dute inolako identifikaziorik edo ur-markarik eraman.

FORMATUA

- Fitxategiak JPG formatuan (10. konpresioa).
- Alderik luzeena, 4.000 pixeleko neurriarekin.
- Fitxategiko gehienezko pisua: 5 mega.
- Fitxategiaren izena argazki-zenbakitik hasi beharko da, seriean dagokion ordenaren arabera, eta izenburuarekin jarraitu. Adibidea: 1_egunsentia.jpg

IZEN-EMATEA ETA BIDALKETAK

Izen-ematea doakoa da. Internet bidez bakarrik, helbide honetan: targazki.fotogenius.es

INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

- targazki@gmail.com
- targazki.com

ONARTZEKO EPEA

2021ko maiatzaren 1etik ekainaren 20ra.

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

2021ko ekainaren 26an.

EPAIAREN BERRI EMAN

2021ko ekainaren 27an.

SARI BANAKETAREN EKITALDIA

2021ko uztailaren 10ean.

EPAIMAHAIA

- Argazkilaritza munduan ospe handia duten zenbait argazkilari esanguratsuk osatuko dute epaimahaia.
- Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.
- Epaimahaiaren berri e-mailez emango da.

KATEGORIA OROKORREKO SARIAK

Lehen saria: 300 € + urre-koloreko domina.
Bigarren saria: 200 € + zilar-koloreko domina.
Hirugarren saria: 100 € + brontze-koloreko domina.

Bertako lehen saria: 200 € + urre-koloreko domina.
Bertako bigarren saria: 100 € + zilar-koloreko domina.
Bertako hirugarren saria: 100 € + brontze-koloreko domina.

GAZTEEN KATEGORIAKO SARIAK

Lehen saria: 100 € argazki-materialean + urre-koloreko domina.
Bigarren saria: zilar-koloreko domina.
Hirugarren saria: brontze-koloreko domina.

Klasifikazioan Euskal Herriko lehen hiru argazkilariek Argizaiola Lehiaketan parte hartzeko gonbidapena jasoko dute.

Egile bakoitzak ezingo du sari bat baino gehiago eskuratu.

SARI BANAKETA

Sari-banaketa Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorraren kanpokaldean izango da, 2021ko uztailaren 10ean, 12:00etan.

Ezinbestekoa izango da saridunak edo saria jasotzeko baimena duen pertsona bat bertaratzea.

ERAKUSKETA

Kategoria eta sari ezberdinetako lanik onenak biltzen dituen erakusketa egingo da uztailaren 10tik aurrera Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorraren kanpokaldean.

OHARRAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar.

Bertan azaltzen ez den edozein gorabehera erakundeak konponduko du.

Aurkeztutako lan guztiak egilearen jabetza absolutuan geratuko dira, eta antolaketak argitaratzeko (liburuxkak, publizitatea, sare sozialak, lehiaketaren webgunea, etab.) edo izaera komertzialik gabeko erakusketarako eskubidea izango du, betiere egilearen izena aipatuta.

Erakusketan zehar fisikoki erakutsitako argazki finalistak eta sarituak Targazki elkarte antolatzailearen jabetzakoak izango dira, eta etorkizunean elkarte antolatzaileak argitaratu ahal izango ditu, betiere irabazi-asmorik gabe eta egilearen izenarekin batera.

Tokiko egileztat hartuko dira Tolosaldean bizi direnak edo TARGAZKI tokiko argazki elkarteko kideak.

Antolakuntzak argazkiak lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea izango du, baldin eta argazki horiek legearen aurkakoak badira.

Emandako datuak konfidentziasunez tratatuko dira.

Bai datak, bai sariak banatzeko ekitaldiak, erakusketak eta abar, unean uneko COVID 19ren ondoriozko egoeraren arabera alda daitezke. Denborarekin abisatuko da aldaketak baldin badaude.